

ZERTAN EMATEN DUGU DENBORA

Deskribapena: Kike, Iñaki Arrutirekin eskola baten jolastokian elkarrizketan ageri da.

Kike: “Garbi dago beraz, irakaskuntza ez dela nahikoa.”

Iñaki: “Bueno... Hori aspaldi ikasi genuen. Begira, adibide batekin jarriko dizut; zuk zortzi urteko ume bat hartzen baldin badezu, eskolatik kanpo pasatzen ditu bere urte osoko egunen erdia baino gehiago. Eta eskolara dijoan egun horietako bat hartzen badegu, zenbat ordu lo egiten ditu? Bederatzi joko degu? Bederatzi horiek kentzen ditugu, geatzen dira hamabost. Zenbat pasatzen ditu gelan? Edo gelatik kanpo? Gelatik kanpo pasatzen ditu hamar ordu. Horrek esan nahi du, gelan pasatzen ditula urte osoko erdien egunak baino gutxiagotatik, bost ordu. Eta egiten badegu batazbestekoa, aterako da ume horren urte osoko esna orduen ehuneko hamabost inguru izango dela gelan pasatzen duena. Eta gelan pasatzen duenean zer egiten du hitz egin ala irakaslea entzun?”